



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

DOLU PROZESUA LEHEN HEZKUNTZAN

Egilea: Maitane García Durán

Zuzendaria: Joana Jauregizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2017ko maiatzaren 29an

© 2017, Maitane García

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA.....	4
1.1. Zer da dolua? Doluaren eredu teoriko ezberdinak.....	4
1.2. Bowlby-ren ikuspuntua. Atxikimenduaren teoria.....	5
1.3. Worden-en atazak doluaren aurrean.....	6
1.4. Doluaren faseak	8
1.5. Dolua 6-12 urteko haurretan: eskolaren papera.....	9
2. METODOLOGIA.....	12
3. LANAREN GARAPENA.....	13
3.1. Proposamen didaktikoa	13
3.1.1. 1. Jarduera: Bizi-zikloa ezagutzen!.....	13
3.1.2. 2. Jarduera: “El otoño de Freddy, la hoja”	15
3.1.3. 3. Jarduera: Gure zuhaitza.....	16
3.1.4. 4. Jarduera: Emozioen kutxa	18
4. EMAITZAK	19
5. ONDORIOAK.....	22
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	24

ERANSKINAK

1. Eranskina: Bizi-zikloa ezagutzen!.....	26
2. Eranskina: “El otoño de Freddy, la hoja”	27
3. Eranskina: Horma-irudia.....	30
4. Eranskina: Emozioen kutxako emaitzak	31

DOLU PROZESUA LEHEN HEZKUNTZAN

Maitane García Durán

UPV/EHU

Heriotza tabu gaia da gaur egungo gizartean eta hori zuzenean islatzen da hezkuntza curriculumean, zeinetan horren presentziarik ez dagoen. Egungo eskoletan ez da heriotzari buruz hitz egiten, hau bizitzaren parte izan arren. Errealitate honi aurre egiteko, Lehen Hezkuntzan heriotza zeharkako gai moduan tratatzea helburu duen proposamen didaktikoa aurkeztu izan da. Pentsatzen den ez bezala, umeei heriotzaren aurrean dolua bizitzen dute, hortaz, proposamen honekin heriotza bizi-zikloaren parte dela ulertarazi nahi izan da. Ondorioztatutako moduan, umeei ez dute heriotzari buruz hitz egiteko arazorik, hori baita hazi heinean barneratzen duten jarrera.

Dolua, heriotza, bizi-zikloa, proposamen didaktikoa, eskola

En la sociedad de hoy en día la muerte es tema tabú y eso se refleja directamente en el currículo de educación, en el que no hay presencia de ello. En las escuelas actuales no se habla de la muerte, aunque ésta sea parte de la vida. Para hacer frente a esta realidad, se ha presentado una propuesta didáctica con la finalidad de tratar la muerte como tema transversal en Educación Primaria. De lo contrario a lo que se piensa, los niños y niñas ante la muerte viven el duelo, por lo tanto, con esta propuesta se ha querido dar a entender que la muerte es parte del ciclo de vida. Como se ha concluido, los niños y niñas no tienen problema para hablar sobre la muerte, ya que esa es una actitud que interiorizan a medida que crecen.

Duelo, muerte, ciclo de vida, propuesta didáctica, escuela

Death is a taboo topic in nowadays society and that is directly reflected in the education curriculum, in which there is no presence of the mentioned issue. In the current schools people do not talk about death, even though it is a part of life. To face this reality, a didactic proposal has been presented with the purpose of treating death as a cross topic in the Primary Education. Contrary to what is thought, when a death happens, children live the mourning and, because of that, the aim of this proposal has been to put around that death is a part of the life cycle. As it has been concluded, children have no problem to talk about death, as it is an attitude they internalize as they grow up.

Mourning, death, life cycle, didactic proposal, school

SARRERA

Jarraian aurkezten den Gradu Amaierako Lan honetan, gaur egungo gizartean tabu den gai bati eskolako testuinguruan aurre egin nahi zaio, hain zuzen ere, heriotzari. Hezkuntza curriculumak ez du heriotzaren inguruko edukirik jasotzen eta, horren ondorioz, gai isila da egungo eskoletan. Hortaz, lan honetan aurkezten den proposamen didaktikoak Lehen Hezkuntzan heriotza naturaltasunez barneratzea du helburu, bizizikloaren azken etapa dela ulertaraziz.

Lana bi atal nagusitan banatuta dago. Alde batetik, heriotzaren aurreko doluari buruz egindako bilaketa bibliografikoa aurki daiteke, lanaren oinarri teorikoa dena. Eta, bestetik, errealitateari erantzuteko diseinatutako proposamen didaktikoa azaltzen da, lau jardueraz osatuta dagoena. Jarduera hauetan heriotza zeharkako gai moduan lantzen da, curriculumak biltzen dituen gainerako edukiak jorratzen diren aldi berean. Eskaintzen den proposamen didaktikoa eskola batean aurrera eramateko aukera egon denez, lanaren beste atal bat lortutako emaitzei zuzenduta dago. Emaitzetan, ikasleek gaia tratatzean izandako jarrera eta jardueren aurreko erantzuna azaltzen da, zeinetan umeek heriotzari buruz naturaltasunez hitz egiten dutela egiaztatzen den.

Azkenik, lana bere osotasunean garatu ondoren ateratako ondorioak biltzen dira. Bertan, proposamena aurrera eramaterako orduan oinarri teorikoaren garrantzia gorai patzen da. Era berean, karga emozional handiko egoeren aurrean irakaslegoaren prestakuntza falta azpimarratzen da, eskolak ez baitizkie ikasleei bizitzan ager daitezkeen oztopoak gainditzeko tresnak eskeintzen.

1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

1.1. Zer da dolua? Doluaren eredu teoriko ezberdinak

Dolua latineko *dolium* hitzetik dator, eta honek sufrimendua edo atsekabea esan nahi du. Dolua lotura afektibo bat apurtzen denean ematen den erantzun emozionala da, zeinetan faktore psikologikoen, fisikoen eta sozialek parte hartzen duten. Heriotzarekin lotzen den arren, galera bat ematen den beste hainbat kontestuetan ematen da ere: etxez aldatzean, askatasuna galtzean, etab. (Cortina eta de la Herrán, 2008). Hala ere, lan honetan heriotzaren aurrean bizitzen den dolu prozesuaren inguruan hitz egingo da eta, ondoren, eredu teoriko ezberdinak azalduko dira, hain zuzen ere, Bowlby eta Worden-enak.

1.2. Bowlby-ren ikuspuntua. Atxikimenduaren teoria

Bowlby-k (1986) dioen moduan, maitasuna eta bihozmina ez dira edozein gizakirengan sentitzen. Bi sentimendu hauek sentitu ahal izateko, ezinbestekoa da gizabanakoarekin lotura afektibo sendo bat izatea. Gizakiek duten lehenengo atxikimendu lotura bere zaintzaile nagusienarekin izaten da, gehienetan ama edo aitarekin, zeina normalean helduarora arte irauten duen. Bowlby-ren teoria jarraituz, Jauregizar-ek (2012) horrela definitzen du atxikimendua:

Haurraren eta beste pertsona baten artean garatzen den lotura emozional berezia, denboran zehar mantentzen dena, bien arteko interakzioari esker garatzen dena, eta elkarrekin egoteko nahia eta banatzean larritasuna sortzen dituen. Atxikimendua bizitzaren lehenengo urtean zehar garatzen da, eta haurraren eta haren zaintzaileen arteko harreman moten menpe egongo da (3.orr.).

Ara-k (2012), atxikimenduaren teoriarekin bat etorritik, gizakiek elkarbizitza eta maitasun loturak sortzeko joera dutela dio, horregatik umearen eta bere zaintzaileen artean lotura gogorak, selektiboak eta iraunkorrak sortzen dira. Lotura afektibo hauei esker, umeek ezberdinduko dute familiako kideen eta ezezagunen artean.

Lotura hauen funtsezko ezaugarria, gertu egoteko joera duten bi pertsonen arteko atxikimenduan datza. Hortaz, Bowlby-ren (1986) hitzetan, lotura afektibo hori apurtzen denean dolu prozesua hasten da, zeinetan atxikimendua eta galera ezinbestekoak diren. Doluaren intentsitatea ez da galdu denaren izatasunaren araberakoa izango, baizik eta horri erantzen zaion balioarena. Izan ere, atxikimendu loturek eta emozio handiko egoerek batera joateko joera dute. Hori dela eta, gizakiek bizi dituzten emozio egoera garrantzitsuenak lotura afektiboak sortzean, hauek mantentzean, apurtzean edota loturak berritzean ematen dira; ondorioz, lotura afektibo hauek lotura emozional moduan izendatzen dira.

Kessler eta Kübler-Ross-en (2010) baieztapenak oinarri, umeak maitatzeko gai diren heinetik mina sentitzen dute. Haur batentzat dolua prozesu gogorra da, askotan horrela ez dirudien arren. Lotura afektibo bat apurtzeko mehatxuaren aurrean, antsietatea sentitzen dute eta galera hori guztiz ematen denean, berriz, tristura. Sentimendu guztiak ulertzen ez dituzten arren, hauek sentitzeko gai dira eta dolu prozesuan helduek haien gidariak izan behar dute (Bowlby, 1986).

Umeek ez dute beharrezko esperientzia ezta beharrezko baliabideak galera haien bizitzetan integartzeko. Haurrek haien erara interpretatzen dute galera, horregatik, behin

baino gehiagotan hitz egin behar da haiekin heriotzari buruz (Kessler eta Kübler-Ross, 2010). Hortaz, umeeek zein helduek, konfidantzazko beste pertsona baten laguntza behar dute maite duten pertsona horren galera gainditzeko. Ordezko bakar eta iraunkor bat izatea oso garrantzitsua da, zeinarekin umeeek atxikituta egon ahal diren. Egoera hauetan bakarrik umeeak galera aldaezina dela ulertuko du eta, hortik aurrera, bere barne-bizitza antolatzen hasiko da (Bowlby, 1986).

1.3. Worden-en atazak doluaren aurrean

Alberola, Adsuara eta Reina-k (2007) azaltzen duten moduan, autore gehienentzat dolua prozesu bat da zeina pertsona guztiek pasatu behar duten maite duten pertsona bat hiltzen denean. Kübler-Ross-ek (2003) dioten moduan, heriotza bizirik geratzen direnen arazoa da eta hildako pertsonarekin bizitako guztiak pisu handia du doluan murgiltzerako eran. Worden-entzat (1997) dolua ez da soilik pertsona batek galeraren aurrean bizitzen duena, baizik eta prozesu aktibo bat. Worden-entzat pertsona horrek denboraldi horretan ataza batzuk burutu behar ditu galera onartu ahal izateko, autore honentzat lau baitira doluan dagoen pertsonak egin behar dituen atazak. Ataza hauek orden zehatz batean egin behar ez diren arren, zaila izango litzateke hurrengo atazak burutzea lehenengoak burutu baino lehen. Worden-ek (1997) orden honetan planteatzen ditu:

1. **ATAZA:** galeraren errealitatea onartzea. Galeraren lehenengo momentuetan ia beti hildakoa joan dela ezeztatzen da eta sinesgaiztasuna da nagusi. Lehenengo ataza hau ezinbestekoa da doluaren aurrean egin beharreko lanarekin jarraitzeko. Errealitatearen parte garrantzitsuenetariko bat da galdutako pertsonarekin berriro elkartzea ezinezkoa dela onartzea, bizitza honetan behintzat.

Horrez gain, pertsona batzuk ez dute onartzen heriotza errealitate bat dela eta lehenengo ataza honetan blokeatuta geratzen dira. Galeraren errealitatearen aurrean, pertsonak haien burua babesteko bi modu nagusi dituzte:

- Galeraren errealitatea ezeztatzea: eman daiteke errealitatearen erabateko distorzioa edota eraldaketa osoa. Pertsona askok “momifikazio” izeneko prozesua bizitzen dute, hildako pertsonaren objektuak mantenduz bera bueltatu arte, inoiz bueltatuko ez den arren.
- Galeraren esanahia ezeztatzea: ezeztapen honekin galerari duen garrantzia kentzen zaio. Anitzak dira horrelako baieztapenak: “ez zen ama

hain ona”; “ez geunden hain lotuta”. Kasu hauetan “momifikazioa”-ren kontrako prozesua ematen da, izan ere, pertsona hauek hildakoarekin zerikusia duen guztia desagertarazten saiatzen dira.

Pertsona askok arazoak dituzte lehenengo ataza hau burutzeko, ez baitute heriotza konponezintzat hartzen. Aipatzekoa da, galeraren errealitatea onartzea denbora eskatzen duela, alderdi emozionalak zein intelektualak inplikaturata baitaude.

2. ATAZA: emozioen lanketa eta galeraren aurreko mina. Worden-ek min emozionalari eta jarrerazkoari zein fisikoari egiten dio erreferentzia. Ataza honetan gizartearen eta gizabanakoaren arteko gatazka sor daiteke, lehenengo honek ez baititu pertsona horren sentimenduak ulertzen.

Ataza honen helburua, galerak pizten dituen sentimenduak identifikatzea eta hauek ez ekiditzea da. Mina bete-betean sentitu behar da, noizbait pasatuko dela jakinik (Alberola et al., 2007). Hain zuzen ere, ataza honetan blokeatuta geratzen diren pertsonak, emozio horiek blokeatzen dituzte eta presente dagoen mina ezeztatzen saiatzen dira.

3. ATAZA: hildakoa jada ez dagoen ingurura moldatzea. Ataza honetan hildakoaren rola zerikusi handia du, ez baita berdina izango hildakoa aita, ama edota neba-arreba izatea (Alberola et al., 2007). Bizirik geratzen den pertsona trebetasun berriak garatzen hasten da, hildakoaren rol ezberdinak hartuz.

Hirugarren ataza honetan blokeatzeak, galerara ez moldatzea esan nahi du. Dolu prozesuan dagoen pertsonak, trebetasun berriak garatu behar ditu eta mundutik aldentzen edota bere buruaren kontra egiten, ataza honen garapena gelditzen du.

4. ATAZA: hildakoa emozionalki berrezarri eta bizitzen jarraitu. Azken ataza hau bizitzea behar bezala jarraitzean datza, galerak eragindako minak besteengan sentimendu positibo berriak sentitzea ekiditu ez dezan (Alberola et al., 2007). Worden-ek dio, ataza hau ez dela amaitzen hildakoa emozionalki berrezartzeko eta atxikimendu lotura berriak egiteko gai izan arte. Hala ere, Volkan-ek (1985) baieztatzen du dolua bukatzen dela galera izan duen pertsonak hildakoaren oroitzapena egunero aktibatu behar ez duenean (Worden-en aipatua, 1997).

Alvarado-k (2013) bere lanean azaldutako moduan, ataza hauen bitartez, dolu prozesuan dauden pertsonen papera guztiz aktiboa da. Era honetan, dolua gainditzeko kapazak izango dira eta ataza guztiak betetzen ez badituzte, dolua amaitu gabe egongo litzateke.

1.4. Doluaren faseak

Meza, García, Torres, Castillo, Sauri eta Martínez-ek (2008) dolua bizitzen ari diren pertsona guztiek hiru etapa nagusi hauetatik igarotzen direla diote:

1. Hasiera edo lehenengo etapa: etapa honen ezaugarri nagusienetariko bat txoke-egoera da. Lehenengo erreakzioa gertatutakoa errefusatzea da, hura ezeztatzen eta jokaera trankila eta bihozgabea agerian jarriz. Fase honek oso luzera laburra du.
2. Erdiko etapa: doluaren erdigunea da. Etapa hau luzeena da eta gizabanakoak bizitzen duen depresioa adierazgarri gisa du. Fase honetan mundua hutsik dago, ez dago ezer erakargarririk.
3. Amaierako etapa: berrezarpen denboraldia da. Fase hau gizabanakoa etorkizunera begiratzeko duenean hasten da; bere interesak berpizten dira eta gai da desio ezberdinak izateko eta hauek adierazteko.

Kessler eta Kübler-Ross-ek (2010) etapen inguruan gehiago sakonduz, dolua bizitzeko modu zehatzik ez dagoela diote, pertsona bakoitzak bere ezaugarrien arabera modu batean bizitzen baitu. Hala ere, haien aburuz, bost dira galera onartzeko bizi behar diren etapak: ezeztapena, amorrua, negoziazioa, depresioa eta onarpena.

- **EZEZTAPENA**: etapa honetan egoteak ez du esan nahi galdutako pertsonaren heriotzan sinistu ez izatea. Psikearentzat jasotako informazioa gehiegizkoa denez, pertsona hori sorgortasunean babesten da. Doluaren lehenengo etapa honek galeraren aurrean bizirautera laguntzen du, psikearen defentsa mekanismoa baita. Ezeztapenak sentitzen den mina dosifikatzea ahalbidetzen du eta, errealitatea aztertuz, apurka-apurka heriotzaren itzulezintasuna ulertzen bukatuko da lehenengo etapa hau.

- **AMORRUA**: etapa hau era askotan azal daiteke, hala nola, hildako pertsonaren kontrako amorrua izanik edota norbere buruarekiko amorrua pertsona hori ez zaintzeagatik. Objektiboki uler daiteke joan den pertsona ez zela hil nahi, alabaina, emozionalki pertsona hilda dagoela baino ez da ikusten. Horregatik, oso arrunta da amorru hori hildakoari zuzentzea. Hala eta guztiz ere, amorrua soilik azaltzen da segurtasuna sentitzen denean eta jakiten denean amorru horri aurre egin ahal zaiola. Amorrua dolu prozesuaren ezinbesteko etapa da eta honi esker osatze prozesua hasten da.

- **NEGOZIAZIOA**: etapa honetan dolua bizitzen ari duen pertsonak lehen zuen bizitza berreskuratu nahi du. Oso ohikoak dira halakoak pentsatzea: “eta hau egin izan banu...”; “bizitza osoan zehar nire laguntza eskeiniko banu, nire ama bueltatuko litzateke?”.

Negoziazioak askotan errudun sentitzearekin lotura zuzena du, pentsatzen baita heriotza horren aurka zerbait egin ahal zela. Etapa honek psikeari eskaintzen dio beharrezko denbora galerari egokitzeko.

- **DEPRESIOA:** negoziazioaren ostean, pertsonaren arreta orainaldira zuzentzen da. Etapa honetan “huts” sentazioa nagusi da, eta dolua era sakonago batean sentitzen da. Badirudi egin beharreko guztiak ez duela ezertarako balio hildako pertsona jada ez dagoelako. Askotan gizartean depresioa ezohiko egoera moduan hartzen bada ere, maite den pertsona bat galtzea egoera depresibo batean murgiltzea da. Dolua osatze prozesu bat denez, depresioa igaro beharreko etapa da ere.

- **ONARPENA:** askotan etapa hau gaizki ulertzen da, ez baita ondo sentitzea edota gertatutakoarekin ados egotea. Etapa honetan, maite den pertsona fisikoki joan dela eta errealitate hori mantenduko dela onartzen da. Pertsona horrek modu berri honetan bizitzen ikasi beharko du, ondo sentitu eta horrekin ados ez egon arren. Garrantzitsua da pertsonak jakitea bakoitzak bere denbora izango duela oraingo errealitatea onartzeko eta bere bizitzarekin jarraitzeko. Etapa honetatik aurrera, harreman, sentimendu eta esperientzia berriak emango dira.

Helduen eta haurren doluek fase berdinak dituzten arren, Ordoñez eta Lacasta-k (2007) umeen dolu prozesua hiru etapa nagusitan bana daitekeela diote:

1. Protesta: umeak faltan botatzen du joandako pertsona eta buelta dadila errepikatzen du negarrez.
2. Itxaropen-gabezia: umeak hildako pertsona bueltatzeko zuen itxaropena galtzen hasten da eta behin eta berriz negarrez dago.
3. Lotura afektiboaren apurketa: pertsona horrekiko zuen lotura emozionala alde batera uzten hasten da eta bere inguruarekiko interesa bueltatzen da.

1.5. Dolua 6-12 urteko haurretan: eskolaren papera

Gaur egungo eskoletan heriotza tabu gaia da, izan ere, Europa mailako hezkuntza curriculum ofizialetan ez da heriotza landu beharreko gai formatibo moduan agertzen. Hezkuntza ofizialak heriotza existituko ez balitz bezala egiten du, ikasleen formakuntzatik alde batera utziz (Cortina eta de la Herrán, 2008). Gainera, umeak emozioak libreki adierazteko hezitzen ez direnez, bai bizitzaren eta baita heriotzaren aurrean beldur dira. Ume askok ez dute jende aurrean negar egiten, behin eta berriz

entzun dutelako ez dela negar egin behar. Hori dela kausa, ez dira umeak gehiegi babestu behar emozioak adierazten ikas ditzaten (Kübler-Ross, 2003).

Heriotzaren kontzeptua abstraktua eta konplexua da, horren ondorioz, haurren adinak, jasotako hezkuntzak, alderdi emozionalak eta abarrek eragina izango dute heriotzaren aurrean izango duten erantzunean (Ordoñez eta Lacasta, 2007). Kübler-Ross-entzat (2003), jendeak duen hiltzeko moduaren ezberdintasuna landareetan gertatzen den bezalakoa da. Batek landareak berotegi batean hazi ditzake, aldaketarik gabeko temperaturarekin, argiarekin, urarekin, dena kontrolpean edukita eta landare horiek oso politak izango dira. Hala ere, ez daude zoritxarrari aurre egiteko moduan. Eta, pertsona hauek egunen batean ezin badira babestuak izan, esaterako heriotzaren aurrean, orduan errebelatu egiten dira, ez dira denbora asko eusteko gai.

Lafuente-k (1996) baieztatzen duen legez, helduek ez ezik, haurrek ere heriotzaren aurrean dolua bizitzen dute. Heldu askok umeek heriotza ulertzen ez dutela pentsatzen dute; azken hauek jokatzeko duten moduaren eraginez sortzen da ideia hau. Umeek oraina bizitzeko joera dute eta arreta erraz galtzen dute ere, ondorioz, ezer pasatuko ez balitz bezala jokatzeko dute. Hala ere, horrek ez du esan nahi hildakoa ahaztu edota faltan botatzen ez dutenik. Ume askoren jarrera alai eta jostalaria izan daitekeen arren eta gertatutakoari uko egiten diotela badirudi ere, haien defentsa mekanismoa da soilik; axolagabekeria bihurtzen baita sentimenduak ez adieraztearen erantzuna (Bowlby, 1986; Kroen, 1996; Ordoñez eta Lacasta, 2007)

Bestalde, amorrua galeraren bat-bateko erantzuna da, eta hainbat eratan ager daiteke: joku bortitzetan, jarrera agresiboekin, etab. Umeek jarrera agresiboak izan ahal dituzte haien inguruneke pertsonekin, beldurra sentitzen baitute eta era honetan bideratzen baitituzte haien emozioak. Amorruraren funtzioa, egindako ahaleginei indarra ematean datza, bai galdutako pertsona berreskuratzeko eta baita berriro ere ihes egiteko asmoa kentzeko, hauek baitira doluaren lehenengo fasearen nolakotasunak. Heriotzaren aurrean hildako pertsona berreskuratzeko ahalegin horiek patologikotzat hartu diren arren, dolu prozesua igarotzeko ezinbesteko jarrerak dira (Bowlby, 1986; Kroen, 1996; Ordoñez eta Lacasta, 2007).

Kexak eta hildako pertsonarekiko erantzukiak heldu baten zein adin txikiko haur baten erantzunaren parte dira. Bi joera hauek edozein galeraren aurrean ematen dira, edozein pertsonaren erantzun estandarra baita (Bowlby, 1986). Horrekin batera, normala da 6-12

urte bitarteko haurrek heriotza ezeztatzea; dolu prozesuan behin eta berriz ager daitekeen erantzuna da eta (Kroen, 1996).

6-12 urteko haurren erantzuna hobeto ulertzeko asmoz, aurreko urteetan haien pentsaera ulertzea beharrezkoa da. Umeeek lau urte inguru dituztenean, ez dute heriotza aldaezina dela pentsatzen, egoera igarokorra dela eta hildako pertsona bueltatuko dela uste baitute (Kübler-Ross, 2003). Haurrak nagusitzen diren heinean, heriotza errealitatea bihurtzen da. Hain zuzen ere, bost urte dituzten arte ez dira gai heriotzaren hiru ezaugarri nagusiak ulertzeko: alde batetik, heriotza aldaezina eta betirako dela, bestetik, bizi-funtzio guztiak desagertzen direla eta, azkenik, gizaki guztiak noizbait hil egingo direla (Ordoñez eta Lacasta, 2007).

Aurreko paragrafoan azaldutakoarekin bat eginez, Mateu, Flores, García-Renedo eta Gil-ek (2013) 6-9 urte bitarteko haurrak kapazak direla heriotzaren iraunkortasuna ulertzeko diote, hala ere, horrek ez du esan nahi honi aurre egiteko gai direnik. Argi dute heriotzak aldaketa bat eragiten duela eta, hortaz, aldaketa horrek zelan eragingo dien pentsatzera bideratzen dute haien arreta. Gainera, hildako pertsona idealizatzen dute eta, horren ondorioz, aukera dute haien irudimenean hildakoarekin harremanetan egon. Umeeek erantzun dezakete hildako pertsona idealizatzen eta hurrengoak esanez: “nire ama munduko amarik politena zen” edota “nire aita munduko aitarik onena zen” (Kroen, 1996). Askotan errudun sentitzen dira, batez ere haien tristura adierazi ahal ez dutenean (Ordoñez eta Lacasta, 2007).

Kroen-ek (1996) dioten moduan, errudun sentimendua oso arrunta da haien tristura azal ezin dezaketen haurren artean. Umeeek pentsa dezakete haien errua dela pertsona hori joan izatea, beraz, oso garrantzitsua da azaltzea haien errua ez dela izan. Adibidez, amonak “hilko nauzu” edo halakoak esaten baditu eta bat-batean hiltzen bada, umeeek bere errua izan dela pentsatuko du.

Hariari eutsiz, 9 eta 12 urte bitarteko umeeek badakite zeintzuk izango diren heriotzaren aurrean biziko dituzten aldaketak. Heriotza ulertzen dute amaiera aldaezin moduan, zeinaren eskutik ihes egitea ezinezkoa den (Mateu et al., 2013). Adin honekin heriotzari buruzko kontzeptua helduek duten kontzeptuaren berdina da (Worden, 1997).

Ordoñez eta Lacasta-k (2007) haur doluari erreferentzia egitean, helduen kasuan bezala, hainbat dira normaltzat hartzen dituzten adierazpen edo jokabideak. Doluak emozionalki pisu handia duenez gero, umeeek garapen emozionalean atzera egin dezake, arreta gehiago eskatzen edota haurtxo baten moduan hitz egiten. Umeeek haien sentimenduak eta emozioak azaltzeko arazoak dituztenez, adierazpen fisiologikoak dira

nagusi dolu egoeretan, hala nola, tripako mina izatea edota elikatze eta loaldian aldaketak ematea.

Ordoñez eta Lacasta-k (2007) eta Kroen-ek (1996) baieztatzen duten moduan, doluaren aurrean ume askok hildako pertsonaren papera hartzen dute, hau da, hildako pertsona ama edo aita bada eta berak neba-arrebak baldin baditu, hauen zaintzaz arduratzen saiatzen da.

Aurreko paragrafoetan aipatutako adierazpen guztiak eskolan islatu daitezkeela jakinik, eskolaren papera ez da soilik informazioa eskaintzea, baizik eta beharrezko laguntza ematea ere. Eskolak ez du bakarrik esku-hartu behar egoera traumatikoa ematen den momentuan, horretara aurreratu beharko litzateke prebentzio lana eginez eta umeekin heriotza aurretik landuz. Irakasleek dozentzian zehar heriotza hurbiletik biziko dute, hots, ikasle baten aita edo ama hiltzean, ikasleren bat gaixotzean, etab. Hori dela kausa, nahiz eta psikologoaren lana egin behar ez duten, horri aurre egiteko tresnak izan beharko lituzkete. Oso garrantzitsua da eskolako profesionalen arteko elkarlana eta irakasleak jakin dezala zeintzuk diren bere mugak eta ahulguneak (Mateu et al., 2013).

Gorosabel eta León-ek (2017) dioten bezala, heriotzaren aurreko beldurra eskuratua da, hortaz, honako hau kontuan hartu behar da heriotza zer den azaltzean. Momentu oro argi utzi behar dira aurretik aipatutako heriotzaren hiru ezaugarri nagusiak. Gai hau tratatzean sentikortasunez hitz egin behar zaie umei, alabaina, ulermena oztopatzen duten esaldirik erabili gabe, hala nola, “aitona lotan dago” edo “ama zerura joan da”. Kessler eta Kübler-Ross-ek (2010) umei hitz egiteko aukera ematea guztiz garrantzitsua dela diote. Haiak aukeratu behar dute zein den momenturik egokiena hildako pertsonari buruz hitz egiteko. Beraz, isilik egoten ere utzi behar zaie, beraien erritmoak errespetatuz.

Hala eta guztiz ere, Bucay-k (2006) dio ez dagoela doluari erantzuteko modu bakar bat, pertsona bakoitzak era batean bizitzen baitu. Halere, “ez da zure errua izan”; “normala da oihukatu nahi izatea eta haserre egotea” edota “ez duzu inoiz gertatutakoa ahaztuko baina horrekin bizitzen ikasiko duzu” moduko esaldiak lagungarriak izan daitezke (Mateu et al.-en aipatua, 2013).

2. METODOLOGIA

Proposamen didaktikoa aurkeztu baino lehen, garrantzitsua da jakitea zein kontestutan aurrera eramango den, hortaz, ondoren ikas-taldearen ezaugarriak azalduko dira.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, Salesianos Deustuko bigarren zikloko 4. mailako ikasleak direla. Talde honetan 26 ikasle dira, hauetatik 12 neska eta 14 mutil. Bi errepikatzaile daude eta atzerritar bakar bat, aurtan etorriberria dena eta, beraz, euskararekin arazoak dituena. Aipatzekoa da, kurtso hasieran 27 ikasle zirela gelan eta hogeita zazpigarren hori, atzerritarra zena, bere jaioterrira bueltatu izan dela. Beraz, ikasleek eskolan bertan esperimentatu izan dute galera.

Hainbat irakaslerekin izandako elkarrizketen ondoren, galera eskolan lantzen ez den gaia dela diote. Hala ere, horrek ez du esan nahi garrantzia kentzen diotenik gaiari, izan ere, aitortu egin dute oso gai sakona dela eta landu beharrekoa, zentroko ikasle zein irakasle gehienek sufritu baitute. Horrez gain, heriotza errealitate bat dela pentsatzen dute, alabaina, gaur egun matematikak menperatzeari edota gizarte zientzietako kontzeptuak lantzeari garrantzi gehiago ematen zaio bizitzaren parte diren prozesu edo gertaerei baino. Nabarmendu dute ez dutela momenturik aurkitzen horrelako gaiak tratatzeko, ez baitaude hezkuntza curriculumaren barnean eta denbora aldetik oso estu dabilatzelako beti. Hori dela eta, aurrerago ikusiko den bezala, proposamen didaktiko honetan heriotza zeharkako gai moduan landuko da.

Bestalde, ondoren proposatuko diren lau jarduerak planifikatzeko, marko teorikoa kontuan hartu da. Alde batetik, Kübler-Ross-en metafora batean oinarrituta daude, hain zuzen ere, bertan azaltzen duelako ez direla umeak naturaltasunez hazten, baizik eta berotegi batean landareak bezala. Hori dela kausa, ez daude heriotzari aurre egiteko prest ezta horri buruz hitz egiteko ere. Hortaz, landareen bizi-zikloa oinarri hartuta, gizakion bizi-zikloa landuko da, heriotza amaiera izanik. Beste aldetik, Bowlby-ren atxikimenduaren teoria oinarri hartu da ere, umeek ez baitituzte pertsonak faltan botatzen baliorik eransten ez badiete. Horrez gain, une oro umeen emozioak eta sentimenduak kontuan hartzen dira. Besterik gabe, hona hemen proposamen didaktikoa.

3. LANAREN GARAPENA

3.1. Proposamen didaktikoa

3.1.1. 1. Jarduera: Bizi-zikloa ezagutzen!	
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizi-zikloa - Heriotza

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaki-bizidunen bizi-zikloa ezagutzea. - Heriotza gaiara hurbilketa egitea. 			
Nori zuzenduta? 4. mailako ikasleei	Irakasgaia Natur Zientziak	Iraupena 30 minutu	Lekua Ikasgela	Materiala Irudiak, korda eta pintzak
<p>Metodologia eta deskribapena:</p> <p>Ikasleek 4-5 pertsonetako taldeak egingo dituzte eta talde bakoitzari 4 kartulina emango zaizkio (1. Eranskinean ikusgai). Kartulina bakoitzean irudi bat egongo da izaki-bizidunen bizi-zikloaren fase edo momentu bat azaltzen duena. Kasu honetan, zuhaitz hostoerorkor baten bizi-zikloa erabiliko da.</p> <p>Talde bakoitzaren zeregina irudi horiek hasieratik amaierara antolatzea izango da, hau da, hazia ereiten den momentutik zuhaitzari hostoak jausten zaizkion arte eta zuhaitz hori hil egin arte. Talde bakoitzak korda batean argazkiak ordenaturik eskegiko ditu eta, ondoren, korda erakutsiko dute haien ordena arrazoituz.</p> <p>Jarduerari amaiera emateko, saioan zehar erabilitako adibidea gizakion bizi-zikloarekin lotu beharko dute ikasleek. Horretarako, irakasleak gidariaren lana egingo du hurrengo galdera hauek proposatuz edo sor daitezkeen beste batzuekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerekin lotu genezake zuhaitz honen bizi-zikloa? • Gizakion bizitza ez ote da zuhaitz honen hostoen modukoa? • Jaiotza, bizitza eta heriotza ez dira geure bizi-zikloaren fase nagusiak? <p>Azken hausnarketa honetan irakasleak argi utzi beharko du gizaki guztiok jaiotze, bizi eta hil egingo garela eta bai jaiotza bai heriotza ere geure bizitzaren parte direla.</p>				
<p>Aurretiko prestakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bizi-zikloaren irudiak prestatu. - Kordak zatitan banatu. - Taldeak antolatu eta gela prestatu. 				
<p>Jarduera burutzeko eman beharreko pausuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak taldeetan antolatu eta talde bakoitzari txoko bat egokitu. 2. Talde bakoitzari irudiak eman. 3. Irudiak ordenatu eta talde bakoitzak segida kordan eskegi. 4. Talde handian segidak aurkeztu. 5. Amaierako hausnarketa egin. 				

Ebaluazioa:

Jarduera honen ebaluazioa behaketaren bidez egingo da. Horretarako, hurrengo item-ak jarraituko dira:

- Ea bizi-zikloa ulertu duten eta irudiak ondo ordenatu dituzten.
- Ea egindako segida arrazoitzeko gai izan diren.
- Ea heriotzaren gaiaren inguruan hitz egiten hasi diren.

3.1.2. 2. Jarduera: “El otoño de Freddy, la hoja”

Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Heriotza - Dolua - Bizi-zikloa 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Heriotzari buruz naturalki hitz egitea. - Heriotza bizitzaren parte dela ulertzea. 			
Nori zuzenduta?	Irakasgaia	Iraupena	Lekua	Materiala
4. mailako ikasleei	Lengua	50 minutu	Ikasgela	Ipuina

Metodologia eta deskribapena:

Jarduera honetarako Leo Buscaglia-ren “El otoño de Freddy la hoja” ipuina erabiliko da (2. Eranskinean ikusgai). Ikasgelan irakurketa dialogikoa egiteko, ikasle bakoitzak ipuina irakurri eta gehien gustatu zaion zatia edo nabarmendu nahi duen pasartea azpimarratu beharko du. Horrez gain, testuaren interpretazio ezberdinak egin ahal izango dituzte umeez, talde handian azaldu ahal izango dituztenak.

Irakurritako testua komentatzen hasteko, irakasleak ikasleei azpimarratutako zatia nahi izanez gero ozen azaltzeko aukera emango die. Une oro irakasleak moderatzailearen lana egingo du eta ikasleek testua komentatzen duten bitartean (bakoitzak bere txanda errespetatuz), irakasleak hurrengo galderak edo sor daitezkeen beste batzuk egingo ditu:

- Zer gertatzen zaie hostoei zuhaitzetik jausten direnean?
- Zer azaldu zion Daniel-ek Freddy-ri hostoak erortzen hastean?
- Freddy nola sentitzen da zuhaitzak gainerako hostoak galtzen ditunean?
- Nola sentitzen gara maite dugun pertsona bat hiltzen denean?

Aurreko galderak proposamen soil bat badira ere, landu nahi diren gaietara hurbilketa

egiteko lagungarriak izan daitezke. Saioa amaitzeko, ikasleek dituzten jakinminak asetzeko tarte bat eskeini behar zaie. Testuak ikasleen artean emozio ezberdinak piztu ahal ditu eta, horregatik, irakasleak azaldu beharko luke heriotza dela bizi-zikoa ixten duen azkenengo gauza. Gogorra eta askotan ulertezina izan daitekeen arren, guztiok hil egingo gara “hosto berriei” lekua uzteko.

Aurretiko prestakuntza:

- Ipuinaren egokitzapena egin, hots, laburtu eta hiztegia haien adinera egokitu.
- Gela talde handian lan egiteko prestatu.

Jarduera burutzeko eman beharreko pausuak:

1. Ikasgela talde handian lan egiteko moduan antolatu.
2. Ikasle bakoitzari testua eman.
3. Bakarka testua irakurri eta pasarteren bat azpimarratu.
4. Guztien artean testua komentatu.
5. Irakasleak hausnarketa sustatzeko galdera ezberdinak proposatuko ditu.

Ebaluazioa:

Jarduera honen ebaluazioa behaketaren bidez egingo da. Horretarako, hurrengo item-ak jarraituko dira:

- Ea testua ulertu duten eta haien interpretazio propioa egiteko gai izan diren.
- Ea heriotza eta dolua Freddy-ren istorioarekin lotu duten.
- Ea heriotza bizitzaren parte dela ulertu duten.

3.1.3. 3. Jarduera: Gure zuhaitza	
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Heriotza - Dolua - Emozioak - Atxikimendua
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Heriotzari buruz naturalki hitz egitea. - Heriotza haien bizitzaren parte dela ulertaraztea. - Doluan ager daitezkeen emozioak azalratzea eta identifikatzea.

Nori zuzenduta?	Irakasgaia	Iraupena	Lekua	Materiala
4. mailako ikasleei	Arte	50 minutu	Ikasgela	Paper handia, margoak, kartulina...
<p>Metodologia eta deskribapena:</p> <p>Freddy-ren istorioan oinarrituz, talde handian ikasleek horma-irudi bat sortuko dute. Jarduerari hasiera emateko, jakinda karga emozional handiko saio bat dela, ikasleek borobil bat egingo dute eta nahi duten momentuan hitz egiteko aukera emango zaie. Irakasleak ez ditu umeak hitz egitera behartuko, alabaina, gaiari heltzeko hurrengo galderak proposatuko dizkie ikasleei:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Noizbait hil egin da maite zenuten pertsonaren bat? Ba al dago faltan botatzen duzuen norbait? • Nola sentitu zineten halako momentu batean? • Zein izan zen nabaritu zenuten sentimendurik gogorrena? • Nori azaldu zenioten sentitzen zenutena? Eta pertsona horrek zer egin zuen laguntzeko? <p>Galderen erantzunen arabera une hau luza daiteke. Irakasleak behar beste denbora zuzenduko dio momentu honi. Horren ostean, horma-irudia egiten hasiko dira. Ikasle bakoitzak hosto bat irudikatuko du eta bertan bere izena edo haren irudia egingo du. Horren ostean, haiek galdutako pertsona bati beste hosto bat zuzenduko diote. Ondoren, guztien artean historik gabeko zuhaitz bat marraztuko dute. Azkenik, zuhaitzaren adarretan ikasle bakoitzak bere hostoa itsatsi beharko du eta adarretatik erortzen galdu dituzten pertsonen hostoak. Saioa bukatzeko, guztien artean murala horman itsatsiko dute eta irakasleak bizia eta heriotza irudikatu dutela azalduko die. Orain zuhaitzari lotuta dauden hostoak etorkizunean bertatik ere eroriko direla ulertarazi beharko die.</p>				
<p>Aurretiko prestakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Materialak prestatu eta ikasgelan ikasleen esku utzi. - Mahaiak alde batera mugitu talde handian lurzoruan lan egiteko. 				
<p>Jarduera burutzeko eman beharreko pausuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hasierako hausnarketa. 2. Ikasgela talde handian lan egiteko moduan antolatu. 3. Ikasleei egin beharrekoaren azalpena eman. 				

<p>4. Bukatzerakoan, klaseko txoko batean murala kokatu.</p> <p>5. Hostoen metaforarekin saioa itxi.</p>
<p>Ebaluazioa:</p> <p>Jarduera honen ebaluazioa behaketaren bidez egingo da. Horretarako, hurrengo item-ak jarraituko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ea heriotzari buruz naturaltasunez hitz egin den. • Ea heriotza haien bizitzen parte dela ulertu duten. • Ea emozio ezberdinak azaleratu eta izendatu dituzten. • Ea haien bizipenetaz eta hildako pertsonetaz naturaltasunez hitz egin duten.

3.1.4. 4. Jarduera: Emozioen kutxa				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Heriotza - Dolua - Emozioak 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Heriotzari buruz naturalki hitz egitea. - Ikasleek heriotzaren aurrean sentitutako emozioak identifikatzea. 			
Nori zuzenduta?	Irakasgaia	Iraupena	Lekua	Materiala
4. mailako ikasleei	Tutoretza ordua	50 minutu	Ikasgela	Kutxa, papera eta arkatza
<p>Metodologia eta deskribapena:</p> <p>Prozesua borobiltzeko, ikasleei hildako pertsona berezi horri buruz hitz egitean sentitu dutena galdetuko zaie. Ikasgelako mahaiak alboetara eramango dira eta borobil bat egingo dute ikasleek. Bakoitzak paper zati bat izango du eta bertan bere emozioak islatu ahal izango ditu marrazki, esaldi edota hitz baten bitartez. Nahi izanez gero, ikasleek gainerako kideei paperan egindakoa erakutsi ahal izango diete. Horren ostean, ikasleek papera emozioen kutxan sartuko dute eta kutxa egindako muralaren azpian kokatuko da, zuhaitzaren sustraiak izango balira bezala.</p> <p>Saio bukaeran, heriotzarekin guztiok topo egingo dugula eta egunerokotasuneko kontua dela argi utzi behar da. Beraz, lagungarria izango litzateke horrelako esaldiekin saioa bukatzea:</p>				

<ul style="list-style-type: none"> • Maite ditugun pertsonak galtzea gogorra den arren, haiek gogoratzea polita bihur daiteke. Beti egongo dira gure bihotzetan. • Heriotzaren aurrean sentitutako emozio nahasketa sentitzea normala da, ez zarete horretaz lotsatu behar. Guztioi gertatzen zaigu. • Ez gaituzte behartu behar galdutako pertsonaz hitz egitera, hala ere, heriotza guztion bizitzetan dago eta naturaltasunez tratatu dezakegun gaia da. Ez dezagun beldurrik izan. <p>Irakasleak ez du haririk solte utzi behar. Ikasleren batek zeozer gehitu nahi baldin badu, orain izango du hitz egiteko aukera.</p>
<p>Aurretiko prestakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasgela prestatu. - Emozioen kutxa prestatu. - Paper zatiak egin.
<p>Jarduera burutzeko eman beharreko pausuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Borobil bat egin. 2. Ikasle bakoitzari paper zati bat eman. 3. Kutxa egindako borobilaren erdian kokatu. 4. Ikasleei aukera eman paperean idatzitakoa erakusteko. 5. Paperak kutxan sartu eta zuhaitzaren azpian jarri. 6. Saio bukaera: hausnarketa.
<p>Ebaluazioa:</p> <p>Jarduera honen ebaluazioa behaketaren bidez egingo da. Horretarako, hurrengo item-ak jarraituko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ea haien emozioak adierazi dituzten. • Ea heriotza prozesu natural moduan hartu duten eta naturaltasunez horren inguruan hitz egin duten.

4. EMAITZAK

Aurreko atalean egindako proposamen didaktikoa praktikan jarri denez gero, emaitza jakin batzuk lortu dira. Hauek lanean islatzeko asmoz, jardueraz jarduera ebaluazioa egingo da, kontuan izanik aurretik zehaztutako helburuak eta umeen erantzuna.

1. JARDUERA: Hasieran, umeek irudiak eskuratu zituztenean ez zuten heriotzarekin loturarik egin, hala ere, landare baten bizi-zikloa zela argi izan zuten. Izan ere, irudiak ordenean jartzerako orduan, halako komentarioak egiten zituzten: “irudi honetan zuhaitza jaio da”; “honetan zuhaitzak hosto berdeak ditu, orduan, hau baino lehenago doa”. Irudien segida eratzeko momentuan ez zuten heriotza hitza erabili, alabaina, bazekiten nola hazten zen zuhaitz hori eta zein izango zen bere amaiera.

Talde guztiek ondo ordenatu zituzten emandako kartulinak eta arrazoitzerako orduan pisuzko argudioak erabiltzen zituzten: “gure hazitegian egin dugun bezala, lehenengo hazia lurran sartu eta ureztatzen dugunez, handitu egiten da”; “hau azkena jarri dugu zuhaitza ziku dagoelako eta historik gabe”. Erabilitako arrazoitzeko modua ikusita, hainbat galdera egin zitzaizkien hausnarketara bultzatzen zituztenak, hain zuzen, jarduera-taulan agertzen direnak. Hortik aurrera heriotzaren gaiari heldu zioten.

Bukatzeke, esan genezake jarduera hau nahiko labur geratu zela ordu beteko saio batean burutzeko. Hala ere, umeak guztiz inplikatu ziren eta haien jakinmina berehala piztu zen, errutinatik apur bat aldendu zirelako eta inoiz lantzen ez den gaia zelako. Ondo legoke, lehenengo eta bigarren jarduerak lotzea saioa osatzeko edota jarduera bera luzatzea natur zientzietako eta bizi-zikloko eduki gehiago landuz, betiere, heriotzaren gaia alde batera utzi gabe.

2. JARDUERA: Jarduera honi hasiera emateko, ikasle bakoitzak Freddy-ren ipuina irakurri behar zuen. Lehenik eta behin, zer egingo zuten azaldu eta berehala lanera ekin zioten. Irakurtzen zihoazen heinean, umeek horrelakoak esaten zituzten tonu apal batean: “es sobre la muerte”. Esan beharra dago, horrek ipuinean hain sartuta ez zeuden umei lagundu ziela haien arreta testuan jartzen. Eztabaidarekin hasi baino lehen, ikasleen artean horrelako komentarioak entzuten ziren: “Freddy se muere al final”; “todas las hojas se mueren porque se caen del árbol”. Horrelakoak esatean erabiltzen zuten tonua oso baxua zen, sekretu handi bat kontatzen ariko baziren bezala.

Eztabaida hasi aurretik, ikasle bakoitzak azpimarratutako zatia irakurri zuen, zati horren interpretazio propioa eginez. Gehien errepikatutakoa Freddy haizearekin dantza egiten duenean izan zen. Umeek haien aukera justifikatzerako orduan, zatirik alaiena zela zioten. Saioa aurrera joan ahala, ikasleek nahi beste komentario egin zituzten. Guztiek parte hartu zuten hildako animalien istorioak kontatzen edota azalduz haien aitona-amonen bat hil egin zela, heriotza bizitzaren parte dela ondorioztatuz. Oso jarduera polita izan zen, hala ere, denbora falta izan zuten barruan zuten guztia azaltzeko, aurretik inork eman ez dien denbora.

Esan beharra dago, umeek irakurketa dialogikoak egitera ohituta ez zeudenez, batzuei ipuina banaka irakurtzea edota talde handian pentsatzen zutena esatea kostatu zitzaizela. Hori dela eta, posible izango litzateke ipuina guztien artean irakurtzea edota talde txikietan, haurrek parte-hartzeko aukera gehiago izan dezaten eta elkarri errazago lagun diezaioten.

3. JARDUERA: Hirugarren jarduera honetan emozio eta sentimendu ugari azalatu ziren ikasleen artean. Jada ez zuten heriotza urrutik ikusten, eta horrek ikasle batzuen parte-hartzea mugatu zuen. Ume batzuk ez zuten haien hostoa horma-irudian (3. Eranskinean ikusgai) jarri izan nahi eta, horretara behartu ordez, etxera eramateko aukera eman nien haien pribatutasuna errespetatuz. Goraiatzekoa da ume batek joan berri den ikaskide bati zuzendu ziola hosto bat, gainerako ikaskideekin batera zuhaitzaren adarretan kokatzeko.

Bestalde, talde txikietan haien artean hitz egiten zuten inolako arazorik gabe. Hostoak koloreztatzen zituzten bitartean, hildako pertsonetaz hitz egiten zuten eta baita nola eta noiz hil ziren ere azaltzen zuten batzuk. Naturaltasunez hitz egin zen saio honetan heriotzari buruz eta guztiek ulertu zuten Freddy-ri gertatu zitzaion moduan, jaio, bizi eta hil egingo garela.

4. JARDUERA: Ikasleek emozioen kutxa ikusi bezain pronto galdezka hasi ziren. Ez zuten ulertzen zertarako zen ezta zergatik zuen izen hori. Hortaz, jarduera pertsonala eta bakarka egitekoa zela azaltzean, isiltasuna nagusi izan zen gelan. Ikasle bakoitzak orri zati bat hartu eta sentitutakoa idatzi zuen, inork irakurriko ez zuela jakinik. Horrek umei lasaitasuna eman zien eta guztiek parte hartu zuten. Haien emozioak adierazi zituzten irudi, hitz edota esaldi baten bidez (4. Eranskinean ikusgai).

Aukera izan zuten paperan idatzitakoa gainerako kideekin konpartitzeko, alabaina, ume bakar batek erabaki zuen ozenki azaltzea. Ikasleak hitz egiten zuten bitartean, besteek arreta guztia jartzen zuten berarengan, haien errespetu guztia eskaintzen ibiliko balira bezala. Bazekiten heriotza guztion bizitzetan presente zegoela, baina oraindik ez ziren ausartzen haien emozioak gainerakoekin konpartitzera. Horregatik, kutxa zabaldu eta tolestuta sartu zituzten paper zati guztiak, haien emozioak bertan gordeta gera zitezten.

Aurrekoa kontuan hartuta, alderdi emozionala gehiago lantzea komenigarria izango litzateke. Hala ere, horrek denbora gehiago behar du, umeak ez baitaude ohituta haien emozioei buruz hitz egitera. Ondo legoke adimen emozionala alde batera ez uztea eta horrelako jarduerak tartekatzea.

5. ONDORIOAK

Heriotza pertsona guztion bizitzen parte izanda ere, bai gizartean bai eskoletan ere tabu gaia bihurtu da. Irakasleekin izandako elkarrizketak oinarri eta hezkuntza curriculumaz aztertu ondoren, heriotza eskoletan lantzen ez den gaia dela baieztatu izan da. Hori dela eta, errealitate honi aurre egiteko proposamen didaktikoa diseinatu eta aurrera eraman da. Horretarako, ezinbestekotzat hartu da aurretik egindako bilaketa bibliografikoa, proposamenaren oinarri izan dena. Jarduerak Kübler-Ross-en metafora batean inspiratuta dauden arren, Bowlby-ren atxikimenduaren teoria kontuan hartu da ere. Metafora horretan pertsonen bizi-zikloa landareenarekin alderatu egiten da, hori izanik lehenengo hiru esku-hartzeen eustazpia. Gainera, guztiz beharrezkoa izan da 6-12 urte bitarteko umeen doluaren ezaugarriak ezagutzea, esku-hartzerako orduan erantzuten jakiteko eta egoera ezberdinei aurre egin ahal izateko.

Proposamen didaktikoan islatu den bezala, eskoletan ez da heriotza gai nagusitzat hartu behar era batean edo bestean lantzeko. Izan ere, curriculumak biltzen dituen arloak lantzen diren heinean, modu ez zuzen batean jorratu daiteke. Jada heriotza lantzeko dagoen materiala aztertu ostean, ipuinak eta filmak batik bat, askotan umeak bigarren plano batean geratzen direla eta barruan dutena adierazteko aukerarik ez dutela ikusi izan da. Proposamen honek, berriz, umea ikusle izatetik protagonista bihurtzeko pausua ematen du. Hots, haurrak ez du istorio bat ikusten edota irakurtzen soilik, baizik eta bere istorioa kontatzeko eta bere emozioak azaltzeko aukera du ere.

Halere, lanak bere mugak dituela aitortu beharra dago, ikasle guztietara heltzea zaila dela jakinda, proposamen didaktiko honek ume batzuen inplikazioa ez du lortu. Emaitzetan azaldu den bezala, ikasle barnerakoienek ez dute jarduera batzuetan guztiz parte-hartu. Kasu hauetan, guztiz erabilgarria izan da alde aurretik jasotako informazioa, zeinetan umeei isilik egoten ere utzi behar zaiela azaltzen den.

Bestalde, irakasleen eta familien jarrerak haurren erantzunean eragin zuzena dutela ondorioztatu da, hau da, helduek helarazten dizkieten aurreiritzien ondorioz, umeek heriotza gai isil moduan hartzen dute, kontuan hartu gabe guztion istorioen bukaera izango dela. Hortaz, emaitzetan islatu den bezala, ikasleek ez dute heriotzari buruz hitz egiteko arazorik, alabaina, jada helduen ideiak jaso dituztenez, heriotza eta horrek dakarren guztia emozio negatiboekin lotzen dute. Umeek heriotzari dioten beldurra bizitzan zehar eskuratzen dute.

Hariari helduz, ez dira umeak heriotzatik aldendu behar, haurrek helduen moduan dolua bizitzen baitute maite duten pertsona bat hil egiten denean. Momentuan sentitutako emozioak izendatzeko zailtasunak dituzten arren, helduek bezala sentitzen dituzte. Honako hau argi ikus daiteke proposamen didaktikoaren azken jardueraren emaitzetan, zeinetan ikasleen artean gehien errepikatutako esaldia “oso triste” izan den. Aurreko hau kontuan izanda, eskoletan adimen emozionalari behar duen garrantzia ematen ez zaiola ikus daiteke.

Beraz, ba al dago irakaslegoa gertaera traumatikoen aurrean erantzuteko prest? Gaur egungo gizarteak heriotza eta antzeko gai traumatikoei buruz naturaltasunez hitz egiteko ahalmena garatu beharra du. Hezkuntza aurreko hau ahalbidetzen duen tresnarik eraginkorrena denez gero, irakasleek prebentziozko lana egin beharko lukete ikasgeletan. Azken hauen lana erabilgarria izan dadin, beharrezko formakuntza jasotzea ezinbestekoa da, heriotza naturaltasunez lantzen lortzeko eta baliabide ezberdinak ezagutzeko. Lan honek behar horri erantzuteko hastapena egiten dio, egungo eskolak ez baitaude prest egunerokotasunean eman daitezkeen egoerei aurre egiteko, curriculumak zehazten dituen edukiak garatzera mugatzen baitira.

Konklusioz, lan honen helburu nagusia heriotza eskolan barneratzea izan dela jakinik, honako hau lortu egin dela esan beharra dago, hain zuzen ere, proposamen didaktikoa eskola bateko ikasleekin aurrera eramateko aukera egon baita. Etorkizunera begira, heriotza gai isil bat izateari utz diezaion espero da, naturalki tratatzen den gaia bihurtuz. Heriotza ikasgelara heldu aurretik landu beharreko gaia da, bizi-zikloko beste etapa baten modura, kontuan izanik pertsona guztien bizitzetan presente dagoela. Horrez gain, material didaktikoari begira egun dagoen hutsunea betetzea espero da ere.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da dozenteen erantzukizuna testuliburuetatik baino haratago doala, eskoletan pertsonak hezitzen direla eta haien bizitzetan ager daitezkeen oztopoei aurre egiten erakutsi behar zaiela. Eskolan umeak diren arren, ume horiek etorkizunean landareen moduan hazi egingo dira. Eta, landare horiek zoritxarrari aurre egiteko prest egon beharko dute.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alberola, V., Adsuara, L. eta Reina, N. (2007). Intervención individual en duelo. C. Campos eta P.T. Sánchez (eds.), *Duelo en oncología* (137-154). Valencia: Hospital Arnau de Vilanova.
- Alvarado, R. (2013). Duelo y alexitimia. *Revista Digital de Medicina Psicosomática y Psicoterapia*, 3(2), 1-13. http://www.psicociencias.com/pdf_noticias/Duelo_y_alexitima.pdf -tik 2016-12-10-ean berreskuratua.
- Ara, M. (2012). El vínculo de apego y sus consecuencias para el psiquismo humano. *Intercanvis*, 29, 7-17. http://www.intercanvis.es/pdf/29/art_n29_01.pdf -tik 2017-01-14-an berreskuratua.
- Bowlby, J. (1986). *Vínculos afectivos: Formación, desarrollo y pérdida*. Madrid: Ediciones Morata.
- Buscaglia, L. (1988). *El otoño de Freddy, la hoja*. Barcelona: Editorial Urano.
- Cortina, M. eta de la Herrán, A. (2008). La educación para la muerte como ámbito formativo: más allá del duelo. *Psicooncología*, 5(2-3), 409-424. <https://revistas.ucm.es/index.php/PSIC/article/viewFile/PSIC0808220409A/15442> -tik 2017-01-17-an berreskuratua.
- Gorosabel, M. eta León, A. (2017). *Cómo preparar a los niños más pequeños para el afrontamiento de la muerte*. http://www.infocop.es/view_article.asp?id=6604&cat=49 -tik 2017-02-08-an berreskuratua.
- Jauregizar, J. (2012). *Atxikimendua ulertzen hezkuntzaren ikuspuntutik*. Leioa: EHU.
- Kessler, D. eta Kübler-ross, E. (2010). *Las cinco etapas del duelo. Sobre el duelo y el dolor*. Barcelona: Ediciones Luciérnaga.
- Kübler-Ross, E. (2003). *Aprender a morir-aprender a vivir. Preguntas y respuestas*. Barcelona: Editorial Sirpus S.L.
- Kroen, W.C. (1996). *Como ayudar a los niños a afrontar la pérdida de un ser querido*. Barcelona: Paidós.
- Lafuente, M. J. (1996). Familia y muerte. M. Millan (ed.), *Psicología de la familia. Un enfoque evolutivo y sistémico* (259-288). Valencia: Promolibro.
- Mateu R., Flores R. García-Renedo M. eta GIL J. M. (2013). *La resiliencia y el duelo en contextos educativos*. Valencia: Universitat Jaume I.

- Meza, E. G., García, S., Torres, A., Castillo, L., Sauri, S. eta Martínez, B. (2008). El proceso del duelo. Un mecanismo humano para el manejo de las pérdidas emocionales. *Revista de Especialidades Médico-Quirúrgicas*, 13(1), 28-31. <http://www.redalyc.org/pdf/473/47316103007.pdf> -tik 2017-02-01 berreskuratua.
- Ordoñez, A. eta Lacasta, M. A. (2007). El duelo en los niños, la pérdida del padre/madre. C. Campos eta P.T. Sánchez (eds.), *Duelo en oncología* (121-136). Madrid: Hospital Universitario La Paz.
- Worden, J. W. (1997). *El tratamiento del duelo: Asesoramiento psicológico y terapia*. Barcelona: Paidós.

ERANSKINAK


1. Eranskina: Bizi-zikloa ezagutzen!



Iturria: <https://www.emaze.com/@ACCWCCWF/Presentation-Name>



Iturria: <https://es.pinterest.com/pin/572942383828034936/>



Iturria: http://www.vectorizados.com/vector/10885_rbol-en-otoo/



Iturria: http://www.mirador4vientos.com/blog_para_bodas_madrid/el-arbol-de-las-firmas-en-nuestro-tutorial-de-los-vienes/

2. Eranskina: “El otoño de Freddy, la hoja”

“EL OTOÑO DE FREDDY, LA HOJA”

Había pasado la primavera, y también el verano. Freddy, la hoja, había crecido. Su parte central era amplia y fuerte, y sus cinco extensiones eran firmes y puntiagudas. Se había asomado por primera vez en la primavera; entonces era un pequeño brote de una rama bastante grande, cerca de la cima de un alto árbol.



Freddy estaba rodeado por cientos de hojas iguales a él, o así lo parecían. Pronto descubrió que ninguna hoja era igual a otra, aún cuando estuvieran en el mismo árbol. Alfred

era la hoja que estaba a su lado. Ben era la hoja de su derecha y Clara era la hermosa hoja de arriba.

Todas habían crecido juntas. Habían aprendido a bailar en las brisas de la primavera, a calentarse bajo el sol del verano y a lavarse en las lluvias refrescantes. Pero el mejor amigo de Freddy era Daniel. Era la hoja más grande de la rama y daba la impresión de haber estado allí antes que todos los demás. A Freddy le parecía que Daniel era el más sabio.

Fue Daniel el que les contó que eran parte de un árbol, y les explicó que crecían en un parque público. Fue Daniel el que les dijo que el árbol tenía raíces fuertes que estaban ocultas en la tierra, allá abajo. A Freddy le gustaba mucho ser una hoja.

El verano había sido especialmente agradable. Los grandes días de calor eran placenteros, y las noches cálidas, apacibles y ensoñadoras. Ese verano hubo mucha gente en el parque. Con frecuencia iban a sentarse bajo la sombra de Freddy. Pero el verano de Freddy pasó pronto. Desapareció en una noche. Freddy nunca había tenido tanto frío. Todas las hojas tiritaban. Estaban cubiertas con una delgada capa de blanco que se derritió rápidamente y las dejó empapadas de rocío, resplandecientes bajo el sol de la mañana.



Otra vez fue Daniel el que les explicó que habían vivido su primera helada, la señal de



que ya era otoño y pronto llegaría el invierno. Enseguida todas las hojas cambiaron de color. Alfred se había vuelto de un color amarillo, Ben de un naranja brillante, Clara se había vuelto roja como una llama; Daniel, púrpura profundo, y Freddy estaba rojo y dorado. Qué hermosos estaban todos, hasta que un día sucedió algo muy extraño.

Las mismas brisas que antes los habían hecho bailar, comenzaron a empujarlos y a tirar de sus tallos. Esto fue la causa de que algunas de las hojas se cayeran de sus ramas y fueran levantadas por el viento, sacudidas de un lado a otro, hasta posarse blandamente sobre el suelo. Todas las hojas se asustaron.

-¿Qué esta sucediendo? - se preguntaban unas a otras en susurros.

-Lo que sucede en el otoño -les dijo Daniel-. Ha llegado el momento de que las hojas cambien de hogar. Algunas personas lo llaman morir.

-¿Todas nosotras moriremos? -preguntó Freddy.

-Sí -respondió Daniel-. Todo muere, sea grande o pequeño, débil o fuerte. Primero cumplimos nuestra tarea. Sentimos el sol y la luna, el viento y la lluvia. Aprendemos a bailar y a reír. Luego morimos.

-¡Yo no voy a morir! -dijo Freddy con determinación-. ¿Tú vas a morir, Daniel?

-Sí -respondió Daniel-, cuando llegue mi hora.

-¿Cuándo será? -pregunto Freddy.

-Nadie lo sabe con certeza -respondió Daniel. Freddy observó que las otras hojas continuaban cayendo, y pensó:- "Debe de haber llegado su hora". Pronto el árbol quedó casi desnudo.



Esa tarde, Daniel se desprendió de la

rama. Cayó sin esfuerzo. Y mientras caía parecía sonreír apaciblemente.

-Hasta pronto, Freddy -dijo. Después, Freddy quedó solo. Era la única hoja que permanecía en su rama. El día siguiente casi no hubo sol. Freddy notó que perdía el color. No dejaba de hacer frío, y la nieve pesaba mucho sobre él. Al amanecer llegó el viento que separó a Freddy de su rama.

Al caer, vio el árbol entero por primera vez. ¡Qué fuerte y firme era! Estaba seguro de que viviría mucho tiempo, y el saber que había sido parte de esa vida lo llenó de orgullo. Cerró los ojos y se quedó dormido. No sabía que después del invierno llegaría la primavera y la nieve se derretiría y se transformaría en agua. No sabía que su ser aparentemente seco e inútil, se uniría al agua y serviría para que el árbol se hiciera más fuerte. Y, sobre todo, no sabía que allí, dormidos en el árbol y en la tierra, ya había proyectos de nuevas hojas que nacerían en la primavera.

Buscaglia-tik (1988) moldatua.

3. Eranskina: Horma-irudia



4. Eranskina: Emozioen kutzako emaitzak

